

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udala**

Gizarte Ongizate Sailak eman behar dituen dirulaguntzei buruzko oinarri-arauak onetsi.

Portugaleteko Udalbatzak, otsailaren 28an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, honako arau hauek onetsi ditu:

**PORTUGALETEKO HERRITARREN ALDEKO URGENTZIAZKO DIRULAGUNTZEN
OINARRI-ARAUAK HELBURU DUTELARIK ARRISKU EDO GIZARTE-BAZTERKETA
EGOERAK AURREZAINDU, SAIHESTU EDO ARINTZEA**

Abenduaren 5eko 12/2008 Lege honen xedea hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea.

Legearen 6. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua ezartzen du:

- a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun-egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.
- b) Babesgabezia-egoerek eragiten dituzten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.
- c) Bazterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- d) Larrialdi-egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

Legearen 16. artikulua, halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio ekonomikoak zehazten ditu. Izan ere, haien artean aipatu behar ditugu 2.a puntuak zehazten dituenak:

«Prestazioak gizarteratzea edota autonomia ahalbidetzeko izateaz gain larrialdi edo premia sozialeko egoeren ondorio ekonomikoak estaltzeko edo konpontzeko ere badira».

Oinarri-arauotan arauturiko dirulaguntzak kategoria horren barruan daude.

1. artikulua. — Xedea eta definizioa

Arautegi honek helburu du berariaz arautzea urgentziazko dirulaguntza zuzenak ematea bazterketa-egoerak aurrezaintzeko eta artatzeko xedez. Halaber, herritarrek eta familiak ere gizarteratu nahi ditu, azaroaren 17ko Dirulaguntza Orokorren 38/2003 Legearen 22.2 c) eta 28.3 artikuluek dakartenarekin bat etorriz.

Larrialdiko laguntza horiek ez dira aldizkakoak, eta Portugaleteko udalerrian errol-datuta dauden pertsonentzat dira zeinen baliabideak nahikoak ez baitira gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren aparteko gastu espezifikoak aurre egiteko.

Izaera finalista dute, eta eman diren xederako bakarrik erabili behar dira.

Subsidiarioak dira, eta, hala badagokio, udalaz gaindiko indarreko legerian aurreikusitako era guztietako prestazio eta gizarte-baliabideen osagarriak.

Herri, gizarte, ekonomia eta gizatasun-mailako interesa ere bada oinarri-arauon arautegiak dakartzan gastu beren-beregizkoei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez dutenen beharrei erantzutea. Behar horiei muzin eginda ez artatzeak herritarrek eta familiak kinka larrian jartzea dakar.

Inguruabar hauek urtean behin eta berriro errepika daitezkeelakoan, araudiak berdintasun, objetibotasun, gardentasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioak izan behar ditu.

**2. artikulua. — Onuradunen betekizunak**

Honako baldintza orokor hauek betetzen dituztenak izan daitezke laguntza hauen onuradun, kontzeptu bakoitzean zehazten diren salbuespenak izan ezik:

- a) Adinez nagusia izatea, salbu eta beste adingabe batzuk ardurapean dituzten adingabeen kasuan.
- b) Estatuan %100ean jabetzan ondasun higiezinik ez izatea (ohiko etxebizitza, garajea eta bizilekuko udalerriko trastelekua izan ezik). Prestazioa ukatzeko ondorioetarako, ez dira higiezintzat hartuko ohiko etxebizitzaz bestelako higiezinak, bizitegi-erabilerakoak ez direnak eta 10.000 eurotik beherako balioa dutenak.
- c) Portugaletako udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea laguntza eskatu baino gutxienez hiru hilabete lehenago, honako kasu hauetan izan ezik:
 - a) Adingabeak ardurapean dituzten familiak
 - b) Arriskuan edo baztertuta dauden pertsonak
 - c) Indarkeria matxistaren edo etxeko indarkeriaren biktimak.
- d) Diru-sarrera nahikorik ez izatea. Hau da, urteko baliabideak ez izatea dagokion DSBEaren zenbatekoa baino bi aldiz handiagoak (orokorra edo pentsioduna, eta enplegurako pizgarriak aplikatuz, hala badagokio), bizikidetz-unitateko kideen kopuruaren arabera, guraso bakarreko familientzako osagarria, EPOa eta EPEa kontuan hartu gabe.
- e) Bizikidetz-unitateko kide-kopuruaren arabera, aurtengo DSBErako (orokorra edo pentsioduna) ezarritako ondare-mugaren 1/3 baino gehiagoko ondarerik ez izatea.

3. artikulua. — Dirulaguntzen onuradunen betebeharrak

- a) Gizarte-laguntzaren prozesu osoan udal mailako erreferentziako langilearekin lankidetzan aritu.
- b) Dirulaguntzak helburu jakin batzuetarako dira. Beraz, haietarako izan behar direnez, agiriak aurkeztuta gizarte-zerbitzuei zuritu beharko zaizkie.
- c) Jakinarazi udal mailako erreferentziako gizarte-langileari edozein aldaketa, baldin eta prestazioak jasotzeko betekizunak betetzeari badagokio eta berariazko hauek batez ere:
 - Aldaketak familia-osaketan.
 - Aldaketak prestazioa taxutzeko oinarri izan diren diru-sarrera edota ondasunetan.
 - Aldaketak ohiko bizitokian.
- d) Behar bezala jaso ez diren prestazioak edo okerreko zenbatekoan jasotakoak itzuli, prozesuak dakarren bezala.
- e) Gizarte-zerbitzuetara bertaratu eta haiekin lankidetzan aritu, hala eskatzen zaie-nean.
- f) Jasotako dirulaguntzak zuritu elikadura-gastuak izan ezik haiek gastua zuritu beharrik ez baitago.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 e) artikuluan ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko bete-beharretik salbuetsita daude larrialdiko udal-laguntza hauen onuradunak.

4. artikulua. — Etxebizitzarako laguntzak: modalitateak eta zenbatekoak**A. Ostaturako dirulaguntzak****1. TIPOLOGIA**

1.1. Hainbat arrazoiengatik ohiko bizitokia utzi behar dutenei premiaz eta aldikada batean ostatu hartzeko gastu beharrezkoak.

1.2. Etxegabetzeak saihesteko eta geldiarazteko gastu beharrezkoak.



1.3. Ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren errentamenduaren estaldura ziurtatzeko gastuak.

2. *Zenbatekoak:*

2.1. Ostatueta/ostatueta/hotel-apartamentuetan eta alokairu-kontratuetan ostatu hartzea: 2.500 euro gehienez.

2.2. Koerrentamenduko/azpierreantamenduko/ostatuko/apopilotzako kontratuak: 1.100 euro gehienez.

B. *Etxebizitza mantentzeko eta zaintzeko dirulaguntzak*

1. TIPOLOGIA

1.1. Energiaren eta etxebizitzaren mantentze-lanetarako eta energia zorpetzeko laguntzak.

1.2. Konponketetarako, altzarietarako eta elektro-tresnetarako laguntzak.

2. ZENBATEKOAK

2.1. 1.1 ataleko gastuetarako: 700 euro gehienez

2.2. 1.2 ataleko gastuetarako: 1.100 euro gehienez *

* Babes ofizialeko etxebizitza huts baten esleipenari dagokionez, gehienez 1.800 euro baloratu ahalko da.

5. artikulua. — *Gizarteratu eta laneratzeko dirulaguntzak: zenbatekoak eta beteki-zunak*

5.A. *Hurtzaindegietan eskolaratzearen ondoriozko gastuetarako laguntzak*

1. TIPOLOGIA

1. Gastuak bizikidetz-unitateko adingabeak hurtzaindegietan edo 2 urteko haurreskoetan eskolaratzeko gurasoak lan-jardueretan badaude edota formazio-ikastaroak egiten badituzte edo egiteko badaude.

2. *Zenbatekoak*

a. Gehienez, 1.600 euro, gastu errealaren %90 gainditu ezinik.

5. B. *Formazioaren ondoriozko gastuetarako laguntzak*

1. TIPOLOGIA

1.1. Erakunde publikoek diruz laguntzen ez dituzten prestakuntza-prozesuetatik eta/edo lan-trebatuntzatik eratorritako gastuak, hala nola: matrikulak, kuotak, garraioa, titulu-luen homologazioa.

2. ZENBATEKOAK

2.1. Gehienez 800 euro, gastu errealaren %90 gainditu ezinik.

5. C. *Gizarteratzeko prozesuak sustatzeko jardueren ondoriozko gastuetarako laguntzak*

1. TIPOLOGIA

1.1. Bizikidetz-unitateko pertsonen garapen pertsonalerako eta/edo sozialerako garrantzitsutzat jotzen diren jardueretan parte hartzearen ondoriozko gastuak.

Kontzeptu honengatik ematen diren laguntzetarako, 2. d) artikuluan ezarritako baldintza ez betetzeko salbuespena ezartzen da: Behar adina diru-sarrerarik ez izatea, udal-erreferentziako profesionalaren balorazio teknikoagatik, laguntza hori premia-egoe-rari aurre egiteko egokia dela bermatzen duena.

**2. ZENBATEKOAK**

2.1. Gehienez 1.600 euro, eta ezin izango da benetako gastuaren %90 baino handiagoa izan, salbu eta gastua udalekuei eta kanpamenduei badagokie, kasu horretan gastuaren %100era irits baitaiteke.

6. artikulua. — Oinarrizko beharrianetarako laguntzak: zenbatekoak eta betekizunak**6. A. Oinarrizko beharrianetarako laguntzak****1. TIPOLOGIA**

1.1. Elikadura, arropa eta oinarrizko gauzak (tapakiak, haur-gurditxoa eta abar).

2. ZENBATEKOAK

2.1. Gehienez 1.100 euro, gastu errealearen %90 gainditu ezinik.

6.B. Osasun-beharrianetarako laguntzak**1. TIPOLOGIA**

1.1. Botikako gastuak, erreabilitazio-tratamenduak, logopedia, protesia, betaurrekoak, audifonoak, haginlaria, baldin eta Gizarte Segurantzaren estaldurarik ez badute, eta, medikuaren txostenaren arabera premia badute.

2. ZENBATEKOAK

2.1. Gehienez 1.100 euro, gastu errealearen %90 gainditu ezinik.

6.C. Kode Zibilaren aginduz (1894. eta 143. artikulua) ordaintzera behartuta dauden senideei emateko hileta-zerbitzuetarako laguntzak**1. TIPOLOGIA**

1.1. Aseguru-estaldurarik ez duten pertsonen edo horiek beren gain har ditzaketen senideei emandako hileta-zerbitzuetatik eratorritako gastuak.

2. ZENBATEKOAK

2.1. Gehienez 1.600 euro, gastu errealearen %90 gainditu ezinik.

7. artikulua. — Emakidarako prozedura

Dirulaguntza zuzenean ematen da, oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.c) artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 67. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiak daudelako.

1. Eskaerak aurkeztu

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuak kudeatuko ditu Udalak ematen dituen urgentziazko dirulaguntzen eskaerak eta Portugaleteko Udalaren Erregistro sailean aurkeztu beharko dira.

Eskatzaileak eskaera-orriarekin batera behar bezala beteta agiriok aukeztu beharko ditu:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia eta behar izanez gero, familia-unitatekideena ere bai.
- Familia Liburuaren edo jaiotza Erregistro Zibilean inskribatzearen fotokopia, eta/edo, hala badagokio, zaintza eta zaintza edo tutoretza egiaztatzen duten agiriak.
- Bizikidetzeta eta ahaidetasun erantzukizunpeko adierazpena.
- Familia-unitatekide guztien diru-sarreraren egiaztagiria (nominak, pentsioak, DBE/EPO langabezia-prestazioak/sorospenak).
- Familia-unitatekide guztien diru-sarreraren eta ondasunen erantzukizunpeko adierazpena.
- Bizkaiko Foru Ogasuneko Ondasunen egiaztagiria.



- g) Jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria, atzerrian jaiotakoen kasuan, eta, ziurtagiri hori oraindik ez badaukate, eskatu izanaren ziurtagiria edo beren herrialdean ondasunik edo ondasunik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena.
- h) 16 urtetik gorako bizikidetzako unitatekide guztien lan-bizitza.
- i) Titularraren betebeharren konpromisoaren agiria.
- j) Baimen informatuaren dokumentua.
- k) Dirulaguntzaren xede diren gastuetarako aurrekontuak edo fakturak.
- l) Udal-laguntza helbideratzeko banku-agiria eta, hala badagokio, banku-agiri endosoa.
- ll) Premia-egoera bermatzen duen eta/edo erreferentziako profesionalak egoera hori egiaztatzeko eskatzen duen beste edozein dokumentu.

Halaber, administrazio-espeditentea osatze aldera, eskatzaileak aukezturiko agiriei Portugaletako Udalak dokumentuok atxikiko dizkie: errolatze eta ibilgailu-agiria, behar izanez gero, familia-unitateko kide guztien elkarbizitza-agiria eta

Gizarte Zerbitzuek eginiko gizarte-txostena.

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuek onuradunen aitorenak egiaztatzeko eskubidea izango dute. Alta, behar beste datu zein txosten eska diezaiekete erakunde edo entitate publiko zein pribatuei, interesdunaren beren-beregizko oniritziarekin.

1.2. Ebazpena

Espeditentea Alkatetzako Dekretuaren bidez ebatziko da.

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuek Udalaren urgentziazko dirulaguntza hauen onuradunen jarraipena egingo dute egiaztatze aldera dirulaguntzak, aurreikusitako helburuetara egokitu direla.

Dirulaguntzak aurreikusitako helburuetarako direla bermatzeko xedez, salbuespenezko kasuetan eta dirulaguntzaren onuradunak aurrez oniritzia emanda, dirulaguntza jaulki ahalko zaie zerbitzua ematen dutenei edo hori ez bada, Udalaren Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan diharduten entitate boluntarioei.

Halaber, dirulaguntza ordainketa bakarrean edo ordainketa zatikatu batzuetan jaulki ahalko da.

Onuradunak frogatzen ez badu jasotako dirulaguntza bere helburua betetzeko erabili dela, bidegabeko kobrantzen prozedurari hasiera emanda, dirulaguntza itzuli beharko du. Salbuetsita daude elikadurako gastuak, zuri-ekitarik behar ez baitute.

Urgentziazko udal-laguntzak ezin izango dira inola ere konpentsatu edo deskontatu, atxiki edo bahitu, aplikatu beharreko Estatuko legeria orokorrean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

8. artikulua. — Justifikazioa

Dirulaguntzak zurtzeko, emandako dirulaguntzen helburu diren gastuen ordainagiriak edota fakturak aurkeztu beharko dira. Salbuetsita daude elikadurako gastuak, zuri-ekitarik behar ez baitute.

Gehienezko epea ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasi eta hiru hila-betekoa izango da ordainketa bakarrekoaren kasuan; ordainketa zatikatuei dagokiari, epea, aldiz, ordainketa partzialak egiten direneko unetik zenbatzen hasita, 30 egunekoa izango da.

Dirulaguntza ez zurtzeak badakar berekin bidegabeko kobrantzen prozedurari ekitea.

9. artikulua. — Dirulaguntzak ezesteko zioak

1. Udal laguntzei edo udalaren eskumeneko beste gai batzuei dagokienez, aurretik antzemandako edozein iruzurrezko jarduerak.



2. Aurkeztutako dokumentazioaren datuekin bat ez datozen nahikotasun ekonomikoaren kanpoko zeinuak egiaztatzea.
3. Eskabide osatugabeak, faltsutuak eta/edo datuak ezkutatzea.

10. artikulua. — Jarraipena

Portugaleteko Udalaren Gizarte Zerbitzuek dirulaguntza hauen onuradunen jarraipena egingo dute egiaztatze aldera dirulaguntzak aurreikusitako helburuetara egokitu direla eta premia sorrarazi zuena konpontzera bideratu direla.

11. artikulua. — Erregimen juridiko aplikagarria

Oinarri-arauon lege-testu arautzaileak hauexek dira: 12/ 2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru-Sarrerak Bermatu eta Gizarteratzeari buruzkoa eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Lege Orokorrari buruzkoa eta bere arautegiak dakarrena, 887/2006 Errege Dekretuak onetsia, uztailaren 21ekoa, publizitate eta lehiaren printzipioei dagokiena albora utzita.

12. artikulua. — Aurrekontuko zuzkidura

Dirulaguntza horiek emateko, deialdietan jasotako diru-kopurua erabiliko da, ekitaldi bakoitzeko udal-aurrekontuan horretarako jasota dagoena.

13. artikulua. — Udalaren urgentziazko laguntzen emakidaren publizitatea

Ez dira argitara emango urgentziazko udal-laguntzen ebazpenak, publizitate hori onuradunen ohorearen, intimitate pertsonalaren edo familiarraren errespetuaren eta babesaren aurkakoa delako, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilaren arabera, hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 c artikulua aplikatuz.

14. artikulua. — Xedapen gehigarria

Araudi hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) argitaratzeaz gain, Udalaren iragarki-taulan eta www.portugalete.org webgunean jarriko da ikusgai.

Portugaleten, 2023ko otsailaren 28an. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo